

# ELKARRIZKETA

## 1.BLOKEA

-Biztanleria:

1-2050ean etxebizitzaren prezioek gora egiten jarraituko dute ala oraingo prezioetan mantenduko dira? Etxebizitzaren prezioak gora egiten jarraituko dutela uste dut, dena garestitzen ari delako: argia, gasa, ura, janaria, arropak... Etxebizitzaren prezioa mantentzea zaila ikusten dut.

2- Jendeak Zumaia herri turistikotzat izango du edo bizileku moduan? Batzuentzat Zumaia oporrak pasatzeko herria izango da hondartza, mendia, kanpinak, hotelak... dituelako, beste batzuentzat bizilekua izango da familia, lagunak, lana... herrian dituelako.

## 2.BLOKEA

-Ekonomia:

1- 2050. urtean zumaiar ugari etxetik egingo al dute lan internet bidez? Industrian ere makinak nagusitzen jarraituko al dute? Bai, zumaiar askok etxetik lan egingo dute internet bidez, urtetik urtera indarra hartzen ari da. Nire ustez, industrian ere makinak egongo dira, makinak ez dira langileekin bezain garesti ateratzen.

2- Uste al duzu udalak nahiko plan badituela gazteak lehenbailehen emantzipatzeko? Gazteek Zumaiatik beste herriren batera joan beharko al dute? Bai, udalak zenbait plan

baditu gazteak gurasoen etxetik beste etxe batean bizitzen hasteko, baina, lana egonkor bat eta soldata itxurazko bat izatea gaur egun asko kostatzen ari da. Horregaitik, gazte batzuk zumaiatik beste herri batera joan beharko dute lan bila eta baita bizitzera ere.

### 3.BLOKEA

-Jasangarritasuna:

1- 2050ean langile gehiago beharko dira edo teknologia berrien ondorioz lan eskulan gutxiago beharko da? Nire ustez, teknologia berrien ondorioz eskulan gutxiago beharko da. Makinek, internetak... eskulanak gutxitzen ditu.

2- Enpresek sortzen duten kutxadura guztia jasateko gai izango al da Zumaiako herria? Zumaiako herria saiatuko da kutsadura murrizten. Egia da, enpresek asko kutxatzen dutela.

3- Zure ustez horrenbeste turista etortzen badira, Zumaiako portua handitu beharko lukete? Zumaiara turista dexente etortzen da, modu askotara etortzen dira eta zabaldu ere egiten dira. Portua handitzeko beharrik ez det ikusten.

### 4.BLOKEA

-Klima aldaketa:

1-2050erako itsas maila igo egingo da. Zer gertatuko da Zumaia bezalako kostaldeko herriekin eta haietan bizi den jendearekin? Itsas maila igotzen bada, Zumaiako bezelako kostaldeko herrietan jendea itsasotik hain gertu ez da biziko, etxebizitzak aparteago egongo dira.

2-Zure ustez zenbat gradu egingo du gora temperaturak?  
Temperaturak gradu batzuk gora egingo ditu. Esaterako, bost bat gradu.

## 5.BLOKEA

-Jendartea

1- Zumaiarrok euskaraz mintzatzen jarraituko dugu gure artean ala gazteleraz hitz egingo dugu?Nik uste dut zumaiarrok euskaraz hitzegiten jarraituko dugula gure artean, euskaraz hitz egin, eta bizi nahi dugulako. Maite dugu.

2-Emakumezkoen kontrako tratu txarrek gora egingo dute ala gutxiagotu egingo dira?Emakumezkoen kontrako tratu txarrek bera egingo dute, gutxiagotu egingo dira. zeren lan asko egiten ari gara: elkarteetan, heziketan, komunikabideetan...

## 6.BLOKEA

-Bestelakoak

1- Turista guztientzat aparkalekua egongo al da Zumaian?Nire ustez, Zumaian udan eta oporretan turistentzat aparkalekua egotea posible izango da, turista batzuk trenez, autobusez, bizikletaz, oinez etortzen badira. Turista guztiak herrira kotxez etortzen badira, zaila izango da.

